

Herritarrak

2012ko martxo

# INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

3. alea



[www.berastegi.org](http://www.berastegi.org)

## HIRIGINTZA

- Dagoeneko hasiak dira udaletxea berritzeko obrek. GOITU enpresa arituko da. Lanek urte beteko iraupena izango dute eta 1.800.000 euroko aurrekontua dute. Foru aldundiak 800.000 euroko diru laguntza eman du. Egitura, teilatua eta lehén solairua konponduko dituzte lehendabizi eta diru laguntzak iristen doazen heinean, gainontzekoa berrituko da.
- HAPOaren onarpena: alegazioak egiteko epea bukatu ondoren, hauek aztertu eta erantzunak eman zaizkie. Ez ohiko osoko bilkuran onarpena emanda, jendaurrean egongo da 45 egunetan nahi duenak alegazioak aurkeztu ditzan.
- Posta bulegoa, udaletxearen zaharberritze lanek dirauten bitartean Gaztainondoko beheko gela batean egongo da.
- Etxe tasatuen beharrak antzemateko banatutako inkesten emaitzak espero baino eskasagoak izan dira, 10 bakarrik jaso dira. Hala ere, lur jabeekin hitz egin eta etxe tasatuak egiteko asmoa aurrera doa.
- Urepele Elkarte. Legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen ez dituelako, elkartearen insonorizazioa hobetzeko lanak aurreikusten dira.



## MOTZEAN

- Herri langilea: 6 hilabetetarako Juanito Salbarredi kontratatu da.
- 2011 urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak Berastegiko Udalari emandako diru kopuru edo Foru Fondotik 75.000 euro itzuli egin beharko ditu. 2012. urtean itzuliko du lau epetan. 2012. urteko aurrekontuetan ere %10 gutxiago aurreikusi da.
- Uholdeak: Foru Aldundiak 1.500.000 euroko diru laguntza emango du. Berastegiko Udalak 72.000 euroko diru laguntza eskatu du eta zenbatekoa iristen den ikusi beharko da. Uholdeek eragindako kalteak konpontzen URAK enpresa aritu da eta eguraldiagatik lanak eten behar izan dituen arren, bukatzekotan da.
- Zuzeneko Salmenta: Berastegin norberaren kontsumorako baino gehiago produzitzen duen jendea egonik, interesgarria litzateke kontsumo taldea sortzen saiatzea, alde batetik bertako produktuak kontsumitu eta ezagutzeko aukera eman dezakeelako, eta bestetik, baserritar askori laguntza emateko aukera polita izan daitekeelako.
- Gaztainondoko etxe tutelatueta erabiltzaile berri bat sartu da eta dagoeneko lau erabiltzaile daude.
- Inauteriak: balorazio ona. 120 lagun bildu ziren eta oso giro polita sortu zen.



## HONDAKINEN KUDEAKETA

Gaur egungo hondakinen sorrera eta kudeaketaren ondorioz sortu eta zabaltzen ari den kezka gero eta handiagoa da. Hondakinak zabor bezala tratatu ditugu, neurrigabe sortu, nahastuta bildu, eta mendizulo beltz batera bota, konponbidea zelakoan.

Argi dago lehenetasuna zaborra ez sortzeari eta birziklatu eta berrerabiltzeari eman behar diogula. Birziklatzeari dagokionez esan orain arte birziklatzen dena baino askoz ere gehiago egin daitekeela eta horretarako bitartekoak jarri behar direla, zaborra zero izatera iristeko helburuarekin (zero zabor politika).

Berastegin ere horrekin bat egin eta beste hainbat herrirekin batera, irtenbide alternatibo bat bilatu nahian, hondakinen kudeaketa sistema politika aldatzearen aldeko apustua egin nahi da, gaikako bilketa sistema aldatuz, eta noski, osasuna arriskuan jartzen ez duen eta ingurumena zainduko duen konponbidea izatea nahi dugu.

Azken finean, hondakinen arazoari irtenbide alternatibo bat bilatu nahi zaio, orain artekoa baino askoz ere eraginkorragoa izango dena.

Hau dela eta, apirilaren 20an, hondakinen kudeaketaren gaiaren inguruan batzar informatibo bat egingo da herrian zer egin daitekeen ikusi, horretan lan egingo duen taldea sortu eta denon artean erabakiak hartzeko.

## URA

Uraren ordainketa eta azpiegituren mantenu kostuak ezin dira Udalak jasotzen dituen uraren gaineko zergarekin konpentsatu, ondorioz, uraren kudeaketak urtez urte gero eta kostu ekonomiko handiagoa ekartzen dio udalari.

Hori dela medio, uraren gestio integrala Gipuzkoako Ur Kontsortzioari ematea da udal talde honen proposamena, eta honek uraren gaineko zergak nabarmen igoko dituen arren aldi berean abantailak ere handiak izango dira: zerbitzuaren kalitate hobea, ur sarearen hobekuntza, 24 orduko arreta zerbitzua, ...

Kontsortzioak urtero 70.000 euroko inbertsioa egiteko konpromezua hartzen du eta horrela pixkanaka ur sarea berritzen joango gara. Bestalde, Udalak ahalegina egingo du ekarpen ekonomikoa eginez tasa igoera hori malgutzeko, hau da, ordaindu beharrekoa kolpetik hain handia ez izateko.

Uztailaren 1ean sartuko ginateke Kontsortzioan.

Udalak, Kontsortzioan sartu aurretik, uraren zergak horrela kobratuko ditu:

- 2010eko ura: 2012ko urtarrilean.
- 2011ko ura: 2012ko uztailan.
- 2012ko ura: 2012ko abenduan (uztaila bitartekoa).



## HERRI BATZARRA

**Apirilaren 20an, ostirala, iluntzeko 21:00etan HONDAKINEN KUDEAKETA eta URAREN GESTIOA BERASTEGIN izeneko batzar informatiboa egingo da.**

Beraz, bi gai hauek duten garrantzia kontuan hartuta, parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, informatzea ezinbestekoa delakoan, ondoren eman beharreko pausoak denon artean zehazteko.